

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Honako atalean, negozio ereduak funtzionatzeko enpresak behar dituen hornitzaile eta bazkideak aurkezten ditugu.



enpresarekin batera, gure erlojuek eramango dituzten eguzki panelak aukeratuko genituzke. Energia berriztagarrien erabilpenean oinarrituko ginateke gure produktua diseinatzeko.

Enpresa berde bat izango garenez, hau da, ingurumena eta natura zainduz ekoitziko dugunez, estatuaren subentzioa izango dugu. Gaur egungo kutsadura maila altua ikusita, ezinbestekoa da ekoizpenek sortzen dituzten gasak eta birziklagarriak ez diren hondakinak ahalik eta gutxien sortzea. Hortaz, eguzki energia erabilia funtzionatuko dute gure erlojuek.



Gainera, Alemaniatik metala inportatu dugu Espainiara "Reuter Technologie GMBH" enpresatik. Hau, metal ez oxidagarriko enpresa da. Material honen abantaila nagusiak; oso higienikoa dela, beroarekiko eta hotzarekiko erresistentea dela eta jasangarria dela dira. Beraz, honi esker, gure produktuarekin

kalitatea bermatuko dugu, iraunkorra eta sendoa izan daitezen.



Bestalde, erlojuak ekoitzen dituzten makroenpresa batekin aliatzea da bigarren aukera; Lotus (<https://lotus-watches.com>) eta Rolex (<https://www.rolex.com/es>) erloju enpresekin. Honi proiektua eskainiz eta elkarlanean jardunez ideiak indar gehiago izan dezan. Hasiera batean, materialen eskaera minimoa izango da, eta behin enpresak martxa hartzen duenean eta salmentak igotzen direnean, baliabide gehiago eskatuko ditugu.



Salmenta puntuei dagokienez, momentuz online-erosketa modukoa denez, ez dago denda fisikorik, baina bai Espainian zein mundu osoan eskuratu daiteke. Horretarako, banaketa azpiegitura handia beharko du gure enpresak; Correos, Seur, DHL, Correos Express edota FedEx bezalako enpresekin bideratuko lirateke enkarguak.

Hala ere, hasiera batean, **EXPIEY** enpresa kontratatuko dugu, marketing digitalaz arduratzeko. Web orria, nahiz marketing plana diseinatuko digute eta Canada S.A enpresa barruan zerbait gaizki badabil, aholkularitza lanak egingo ditu egoera hobetzeko. Honi esker ere, publizitatearen nondik-norakoak bermatuko dituzte; telebistan, irratian... non agertukoko den adostuz.